

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA



ARBASOEN ITUNA

n a r r a t i b a

erain

ARBASOEN ITUNA

Narratiba, 108

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko azaroan

Jatorrizko izenburua:

Itun

Azala:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-235-3

L. G.: SS-1201/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

Toti Martínez de Lezea

ARBASOEN ITUNA

ITZULPENA: MIREN ARRATIBEL



*On Joxemiel Barandiaranen oroitzapenetan,
hark idatzitako 'Mitologia del Pueblo Vasco' liburua
haur nintzen garaitik ondoan izan baitut
eta ENDA saga honen inspirazio iturri izan baita.*

🌀 TOKIAK 🌀

AISO	Areso / Leitza
ARANO	Arano
ARAYN	Etxarri Aranatz
ATHAGUN	Ataun
INTXIXU LEIZE	Mendukilo, Astiz
HOLETI	Olite
ILUNIA / Mila Dorreen Hiria	Iruñea
MEATEGIAK / Andoako Zelaia	Leitzarar / Andoain
LEKUN	Lekunberri
BURDIN MENDI	Zaburu
LAINO MENDI	Artxueta
OXINBERDE	Oxinberdeko Ur-jauzia, Zaldibia
ARRANO HARRI	Larrunarri / Txindoki
ARAKI IBAIA	Arakil Ibaia
URREZKO IBAIA	Oria Ibaia
RUNA IBAIA	Arga Ibaia
HERENSUGEAREN MENDILERROA	Aralar
UX	Untzue / Uxue
ZALDI HARANA	Oria Harana



Ibi

Burdin Mendi

Meategiak

URREA

Arano

Arrano Harri

Aiso

Oxinlerde

Athagun

Lekun

Intxixu Leize

Aragn

Laino Mendi

ARAKI

RUNA

Slunia

Enda lur

Holeti

Ux

🌿 NOBELAKO PERTSONAIA NAGUSIAK 🌿

FIKTIZIOAK

- ABODI, aranotarren ugazaba.
ADELIO, Iluniako apezpikua, gauta.
AMABILIA, Ibiko talde menoskoaren buruzagia.
ARGAIN, Burdin Mendiko aliarren gidaria.
BAKAR, gerrari iturra, Xemenoren laguna.
DOLKITI, aranotarren leinukoa.
ENDARA, Amari Jainkosaren zerbitzaria.
HUBERTO, Holetiko kondea, gauta.
IHABAR, Attaren semea, bigorratarra.
IRKUS, Uxeko bahrtarren leinukoa.
IZAR, Agamundako Onaren ahizpa, arakia.
LAIANE, Izarren alaba, Mumoren biloba, Agamundako Onaren iloba,
arakia.
LEHEN, Arayngo arakien ugazaba.
LOTARI, Ubaldoren seme sasikoa.
AGAMUNDAKO ONA, Oxinberdeko emakume jakintsua, Izarren
ahizpa, araki.
UBALDO, Iluniako kondea, gauta.
URTUN, Athagungo Asurdiren semea, Xemenoren ezkutaria.
XEMENO, Garren semea, Auzako gotorlekuko Zaindaria, iturra.
XURIO, Aranoko errementaria.

MITOLOGIKOAK

AMARI, Endako Ama Jainkosa.

ERNIOBE / TALA.

INGUMA BELTZ, Ilunbeltzen Jauna.

INTXIXU, Amariren iratxoa.

OZEN, gorendarren leinu jentileko buruzagia.

SUA, herensuge zilar-kolorea.

SUGAAR SUGEA, Amariren kidea.

TARTALO GIZAJALE, erraldoi begibakarra.

– I –
ATHAGUN

Gau betean iritsi zen Asurdiren seme Urtun bordara. Bidean, hodeitzar beltz batzuek erabat estali zuten ilargia, eta susmo txarra hartu zion. Zantzu gaiztoa zen: ekialdetik zetozen haize zitelen aierua. *Gorrixka*, bere txakurra, aldamenean joan zitzaion bide guztian, bere urratsari jarraituz, eta hori ere ez zen seinale ona. Izan ere, beti joaten zen Urtunen aurretik; aldian behin, Urtun bere parera iritsi zain gelditu, eta korrika alde egiten zuen berriro. Urtun bera baino gusturago ibiltzen zen mendian, bere kasa, loturarik gabe. Oraingoan, ordea, Urtunen albo-alboan ibili zen, harengandik liparrik ere aldendu gabe, eta urduri zegoela ematen zuen. Bordan sartu zirenean, Urtunek atea itxi, eta atalaga jarri zuen. Sua piztuta zegoen, eta sutondoan topatu zuen gizona, bizkarrez, triku-aulki batean eserita.

–Berandu zatoz... –entzun zion esaten, eta dardarazi egin zuen haren doinu sakonak.

Listua irentsi, sutondora hurbildu, eta kokoriko jarri zen, eskuak luzatuta, berotzeko.

–Ezin izan dut lehenago igo; zelatan dabilzkit.

–Nor?

–*Negu* Zaharra.

–Jakinaren gainean al dago?

–Ez, nik dakidala behintzat...

–Eta zergatik ari zaizu zelatan, orduan?

–Ez dakit; igarri egingo zidan, agian.

–Badu horretarako motiborik?

Urtunek listua irentsi zuen berriro. Ez zion inori hitz erditxorik ere kontatu, baina Athaguneko bailaran, dena jakiten zen; denek zekiten besteek egiten zutena eta ez zutena. *Negu* Zaharrak, batez ere; ez alferrik txabolako atean eserita ematen zuen eguna, bizilagunen joan-etorriak kontrolatzen. Ez zegoen hark jakingo ez zuen mugimendu, is-tilu edo maite konturik inguru hartan.

–Urduri ikusten zaitut... –esan zion, etxerako bidean topatu zuenean.

–Ba ez nago –erantzun zion berak, bere burua ba-besteke.

–Orain ere ariko zara zerbaitetan, Asurdiren seme Urtun –jarraitu zuen agureak–. Besteiei sartuko diezu ziria agian, baina jai duzu nirekin.

Ez zion erantzun, baina gustura asko joko zion ostikoa egurrezko aulkiari eta botako zuen maldan behera hankaz gora, agure eta guzti. Kontu hura gehitxo korapilatzen ari zen, eta, bai, *Negu* Zaharra zuzen zebilen: urduri zegoen. Goiz hartan bertan, bere hildako guztien izenean zin egingo

zukeen ez zegoela bailara osoan bera baino izaki zoriontsuagorik; baina, hara, ordu txarrean gurutzatu zen harekin, zena zelakoa, ez baitzion izenik esan. Horrelako istilu batean nahastea ere! Lau anai-arrebetan gazteena zen, baina ez zuen bere etorkizunaz zertan kezkatu, konponduta zuen, beste askok ez bezala, bere familia Urkiko Aniaren familiarekin ari baitzen gazteak elkartzeko elkarrizketetan. Ania alaba bakarra izanik, bera ere jabe bihurtuko zen noizbait. Nolatan amore eman zuen, orduan, eta onartu zuen auskalo nongo zein zulotatik ateratako Ingumaren seme hark horrela limurtzea?

–Ez, ez du motiborik –erantzun zuen, azkenean–. Baina esaten dutenez, azti samarra da, eta gizonen adimena irakurtzeko ahalmena omen du.

–Hori, txorakeria! Iruzurti hutsak dira aztiak: gauza asko dakitela sinetsarazten diote jendeari, eta dena asmatzen dute; jende sineskorra bere arazoak kontatzeko limurtu, eta horrela erantzuten diete haien galderei, dena jakingo balute bezala.

–Ez dakit, ba...

–Tira. Pixka batean lo egin, eta eguna argitzerako abiatuko gara, egunabarreko argia baliatzeko.

Gazteak buruaz baietz egin, eta kapusaian bildu zen; sutondoan etzan, burua zorroaren gainean jarri, eta begiak itxi zituen. Bere alboan estu-estu etzan zen *Gorrixka* ere, eta lasaitu egin zuen txakurra hurbil sentitzeak. Gizona, aldiz, eserita gelditu zen beste puska batean, suari begira; gero, pixka bat baztertu zituen enborrak, brasa egiteko, eta lurtean etzan zen, su ez hartzeko moduan utzita egurrak. Kontuz

ibili beharra zegoen: bat baino gehiago hil zen erreta, lotarakoan sua piztuta utzi izanagatik.

Urtunek itxita zituen begiak, eta lo zegoela zirudien, baina esna zen; ezin zen lokartu. Borborka zebilkion burua, urduritasunagatik, baina baita izuagatik ere.

Goizean atera zitzaion bidera atzerritarra, bera ardiekin goiko larrera zihoala. Une batez, pentsatu zuen galdutako bidazti bat izango zela eta Iluniako, Mila Dorreen Hiriko, bidearen bila ibiliko zela. Bera ez zen sekula hiri hartan izan, baina maiz topatu ohi zituen kostaldetik hara zihoazen bidaiariak, edo gurdizainak, arrain freskoa, lehorra nahiz gatzunetan ondua zeramatela, edo muskuiluak, ostrak edo balea koipea. Ilunian biziki estimatuak ziren itsaskiak. Bere amak ere hartu ohi zuen koipe pitxer bat, metxarako, eta arrain batzuk, babarrunen edo artatxiki irinaren trukean; berak, ordea, ez zituen sekula jan begiak zuloetatik atera beharrean zituztela ematen zuten zomorro haiek. Zaldi gainean zihoan atzerritarra, lurrik gabea ez zen seinale, eta soingaineko burukodun batez estalita zegoen burutik oinetaraino; ez zitzaion ikusten janzkera, beraz, baina begi zorrotza zuen berak. Larruzko besokoez babesturik zituen eskuak, eta abarka itxiak eta orkatiletako babesgarriak zituen oinetan; gainera, konkor bat sumatzen zitzaion gerrialdean, soingainekoaren azpian, ezpata giderra: gerraria zen. Bazekien. Borrokarako prest zeuden gazteak biltzera bi negu lehenago bailaran agertutako taldeko kideek ere horrelakoxe besokoak eta orkatiletako babesgarriak zeramatzaten. Gustura alde egingo zuen haiekin; baina urrats bat aurreratu zelarik, su eta fu jarri zitzaion aita, eta ez zion askorik lagundu artean

hain mutiko gaztea izateak ere. Burlaizez begiratu zion buruzagiak, eta esan zion izango zuela borrokarako astia gizon dutakoan. Sekula ez zuen halako umiliaziorik jasan, baina laster ahaztu zitzaion, Aniaren familiarekiko tratuen berri izan zuelarik. Harrezkero, bere emazte izango zena eta harekin izango zuen bizimodua beste ezer ez zuen izan go-goan. Goiz hartara arte.

–Aizu! Gazte! Ezagutzen al duzu bailara? –galdetu zion atzerritarrak, diosalik ere egin gabe.

–Ongi baino hobeto –erantzun zion berak, harro.

–Ba al dakizu nondik joaten den Auzako gotorlekura?

–Bai... baina... ez da erraza bidezidor horietan berrera ez galtzea.

–Zilarrezko tremis bat emango dizut hara eramaten banauzu –esan zion gizonak, txanpon distiratsu bat erakustearekin batera.

–Debekatuta dago gotorlekura hurbiltzea...

–Niretzat ez.

–Berehala ilunduko du, eta...

–Esadazu non igaro dezakedan gaua.

Lehen aldia zen zilarrezko txanpon bat ikusten zuena, eta ezin izan zuen ezkutatu harrimena. Txingorra ari zuenean aterpe modura erabiltzen zuen borda zegoen muino leunearaino igo zen kanpotarrarekin, eta iluntzean han elkartzekotan gelditu ziren. Ohi baino goizago itzuli zen herrira, biharamuneko absentzia zuritzeko aitzakiaren bat asmatu beharko zuen-eta. Argi esan zion gizonak: inork ez zuen jakin behar bera han zegoela, inork ez. Azkenean, aitzakia bezala jarri zuen nonbait entzuna zuela orein ar bat ikusi zutela

Arrano Harritik hurbil, adaje izugarrikoa, eta biharamunean hura harrapatzera ateratzeko asmoa zuela. Ehiztari zaildua zen, eta, familia haragiz hornitzeko ardura berak zuenez, gurasoek ez zioten susmo txarrik hartu. Hala, gopor batean eltzekoa afaldu, eta txabolatik atera zen, gurasoak sutondoan lozorroan gelditu orduko. *Gorrixkak* jarraitu egin zion, isil-isilik, ulertu balu bezala hura ez zela izango osteratxo soil bat. Ez zuten inor topatu bidean. Zorionez, ekaitz giroa zegoen, eta, halako hotza egiten zuen, *Negu Zahar* begi-luze hark ere etsi eta bere txabolan babestu behar izan baitzuen.

Beldur eta irrika moduko sentimendu bat eragiten zion ezezagun batekin egoera ezohiko hartan egoteak. Auza toki debekatua zen bailarako biztanleentzat. Berak zekienik, inor ez zen ausartu ehun urrats baino gehiagora hurbiltzen muino soildu baten gainean altxatzen zen dorre izugarri hartara, bera artean titiko umea zela herriko gizon batzuk saiatu zirenetik. Sekulako gezi jaso zuten, aurrera egiteari utz ziezaioten abisatzeko edo. Ez zen inor zauritu, Heren izan ezik, bere amaren anaia: herren gelditu zen, lasterka ihesi zihoala estropezu egin eta maldan behera amildu baitzen, harkaitz bat jo arte; adar lehor bat bezalaxe karraskatu zitzaion eskuin hanka, eta ez zuen mugikortasuna berreskuratu sekula. Harrezkero, Herenek ez zuen izan pasadizo hura beste konturik, eta behin eta berriz ohartarazten zien zein arriskutsua zen gotorlekura hurbiltzea. Hala ere, bera eta bere adineko beste mutiko batzuk pare bat aldiz saiatu ziren, baina arrisku handirik ez hartzeko moduko distantziaraino soilik. Batere mugimendurik sumatu ez, eta tokia hutsik ote zegoen pentsatu zuten. Baina hara jotzera ausartu

ziren bigarren aldian, lau zaldizko ikusi zituzten iristen; portalea ireki zieten, eta itxuraz gaindiezin ziren harresi haien atzean desagertu ziren lau zaldizkoak. Heren Herrenak eta beste batzuek uste osoa zuten espiritu gaiztoen bizitokia zela hura, Inguma Beltzen zerbitzarien bizitokia; zeren nola elikatzen ziren bestela? Inork ez zituen inguruan ehizan ikusi, eta ez zuten ur putzurik ere, inork zekienik. Beste batzuen iritzian, gauten talde aurreratu bat zen, hegoaldeko eskualdeetan sartu eta Enda Lurren izua eragin zuten inbadi-tzaileen talde bat, lurralde osoaren inbasioa prestatzera joana hara. Edonor zirela ere, baliteke oraingoan haiek hurbiletik ikusi ahal izatea. Lokartu zen, halako batean, baina kuluxka txiki bat egin zuela iruditu zitzaion bere lo sakonetik bat-batean esnatu zutenean koplarik gabe emandako astindu latz batzuek.

–Bagoaz –esan zuen arrotzak, besterik gabe.

Artean eguna argitu gabe zegoen, elurra bota zuen, eta bidezidorrak begi-bistatik desagertuta zeuden. Urtunek, ordea, ongi baino hobeto ezagutzen zuen bidea, eta zuzen-zuzen eraman zuen Auzaraino. Gizona oinez zihoan, zaldiari helduta, eta, gotorlekua begien bistan agertu zitzaie-nean, agindutako txanpona eman zion, beste agurrik gabe, eta zaldi gainera igo zen berriro. Une hartan, zerua erabat belztu zen, eta izugarritzko elur eta ur erauntsia bota zuen, tximista, trumoi eta guzti. Haizeak ere halako indarrez jo zuen, non lurrera bota baitzuen gaztea. Habiatic jausitako txoritxo bat bezain babesgabe ikusirik, zaldunak keinu egin zion buruaz, jarrai ziezaion, eta elkarrekin gurutzatu zuten portalea, ireki baitzen gizonak besoa gora jasota lepotik

zintzilik zeraman gauzaki bitxi bat erakutsi orduko. *Gorrixka* bi gizonen atzetik sartu zen, bere ile gorrixka gorputzari itsatsirik eta isatsa hanken artean, azeri jipoitu baten antzera. Handik istant batera, gelaxka batean zeuden; ikatz sutontzi bat zegoen han, eta etzaleku bat eta aulki bat palankanarekin, gainean ur pitxer bat zuela. Harresiaren zulo batetik argia sartzen zen, eta Arrano Harriko gailur elurtua ere ikusten zen handik, Mendi Sakratua, ekaitzaren erdian.

Urtunek harri eta zur ikusi zuen nola erantzten zuen gizonak soingainekoa eta agertzen zen haren azpian larruzko txamarra zoragarri bat, ikur bitxiak brodatuta zituena, eta, haren bularrean, esku ahurraren neurriko medailoi distiratsu bat, ateko zaintzaileei erakutsitako bera. Orobat ikusi zituen artilezko izter-babesgarriez babestutako larruzko galtzak, eta aho distiratsuko ezpata, zeinaren giderra igarri baitzuen soingainekoaren azpian. Gora begiratu zuen gero. Lehen aldia zen elkarri aurrez aurre begiratzen ziotena; izan ere, ordura arte haren bizarra besterik ezin izan zuen ikusi, buru-estalki batez estalita baitzuen aurpegiaren erdia. Eta dardara sentitu zuen berriro. Gizona altua eta gihartsua zen, begirada sarkorrekoa; sorbaldak estaltzen zizkion ileak, eta orbain bat zuen kopetaren erdian. Benetan, gudari indartsu baten itxura zuen, gudari beldurgarri batena. Guduan imajinatu zuen, arma erabiltzen, etsaien kontra borrokan, buruak mozten...

–Nola duzu izena?

Ustekabean harrapatu zuen galderak, eta inarrosi egin zen.

–Urtun.

–Sasikoa?

–Urtun, Asurdiren semea.

–Horrela hobe. Piztu sua, eta jarri arropa lehortzen.

Erantzunaren zain gelditu gabe, gelaxkatik atera zen gizona, eta hantxe utzi zuen bera dardara batean; ez zekien, ordea, bustita zegoelako edo beldurraren beldurrez ari zen dardarka.

–Eta nola arraio piztu behar dut nik orain sua? –esan zuen, ahots gora, bere burua adoretzeko.

Presaka atera behar izan zuenez, bordan ahaztu zitzaion zorroa, non beti eramaten zituen, besteak beste, pare bat suharri. Ardi larruzko berokia erantzi zuenean, pozik gelditu zen ikusirik hezetasuna ez zitzaiola artilezko atorraino igaro, blai-blai zituen arren galtza, galtzerdi eta abarrik. Suharri, ilinti edo sutontzia pizteko zerbait bilatu beharra zeukan, eta kanpora atera zen.

–Zu, gelditu hemen –esan zion *Gorrixkari*, atea itxi aurretik.

Pasabidea ilunpetan zegoen, baina ate sorta bat be-reizten zen; beste gela batzuetako ateak, seguru asko. Eta harritzko eskailera estuan behera jaitsi zen, toki hartako sukaldea edo, gutxienez, ilinti bat hartzeko tximinia pizturen bat topatzeko itxaropenez. Eskailerako azken mailak jaisten ari zela, ahots batzuek geldiarazi zuten. Hormaren kontra estutu zen, muskerrak eguzkipean bezala, eta, jaitsi baino gehiago, irristatu egin zen zirrikitu ilun bateraino, zeinetatik ikusi baitzuen areto handi bat. Hormetatik zirindolekin zintzilikatutako hainbat zuzik, burdinazko euskarrien gainen jarritako

kandela handiek eta, batez ere, tximinia batean erretzen ari ziren enborrek argituta zegoen aretoa; harri eta zur utzi zuen tximinia hark, ez zuen sekula halako tximinia handirik ikusi. Kanpoan artean egun argiz egon arren, doi-doi sartzen zen argia, gezi-leiho batzuetan zehar, zeinetatik sartzen baitzen haizea, gune izugarri handi hartako itxi usaina arintzeko. Urtun liluratuta gelditu zen egurrezko sabaiarekin, hura apaintzen zuten koloretako irudi eta ikurrekin, hormetako tapiz astunekin eta ohol modura jarritako mahaiairekin. Hogei bat gizon zeuden mahaian eserita, eta medailoi bera zeramaten denek bularretik zintzilik. Denak batera ari ziren hizketan, eta baziren hitz eta esaldi batzuk berak ulertzen ez zituenak: ongi zorroztu behar izan zuen belarria, jakiteko zertaz ari ziren eztabaidan.

–Hemen itxaron behar dugu haiek etorri arte –esan zuen zaharrena ematen zuenak, adats luze sarri eta bizar zuriko gizon batek.

–Sagutegian harrapa gaitzaten? –galdetu zuen haren albokoak, zeinaren hazpegiak ez baitzituen Urtunek zegoen tokitik ikusten.

–Haiekin hitz egitea komeni zaigu...

–Eraso egin behar diegu! –esan zuen beste batek ozen.

–Nola, baina? Ez dugu gudarosterik. Lau katu eta atso bat gara, eta ez gara gai gure artean ados jartzeko ere. Etorri, eta gure herriak txikituko dituzte; ondotxo dakit nik hori, iparraldean ikusiak ditut-eta: ikusi ditut hiri osoak suntsitzen, larreak erretzen, abereak lapurtzen, gizon, emakume nahiz haurrak bortxatzen. Milaka dira, eta hemen inork ikusi gabeko gerrako makinak dituzte.

Aretoan bildutakoek isilik entzun zituzten Urtunek gotorlekuraino gidatutako gerrari misteriotsuaren hitzak.

–Tira, tira! Gautek ez dute halakorik egingo; ez dira freiak bezalakoak, ezta hurrik eman ere.

Halako batean, gizon bat zutitu zen, aurrekoaren parean eserita zegoena; soina eta besoak brodatuak zituen artilezko soingaineko granate batez jantzita zegoen gizon hura.

–Endako seme-alabekin akordioa egin nahi dute, besterik ez –jarraitu zuen.

–Nola dakizu zuk hori?

–Haiekin egon naizelako. Haien erregearen asmoa ez da gu konkistatzea edo gu suntsitzea, gurekin aliantza egitea baizik, bi herrien hobe beharrez. Freiei aurre egiteko gudariak emango dizkiogu guk, eta hark, ordainetan, babestu egingo gaitu. Neuk antolatuko dut bilera, ongi irizten badiozue.

–Nola esan duzu izena duzula? –galdetu zuen atzerri-tarrak.

–Alarabi baretarra. Eta zuk?

–Xemeno naiz, Larroko guduan freiak azpiratu zituen Keioren seme Garren semea, eta Endako etsaien kontra garaile izan nintzen neu Heletako zabaldietan.

Eserlekutik altxatu zen, eta, istant batzuez, halako isiltasun trinkoa egin zen, Urtun beldur izan baitzen bere arnasotsa entzungo ote zen; txundituta zegoen. Ez zegoen gudari haren izena ez zekienik, Enda Lurreko azken txokoraino ere zabaldu zen haren ospea. Istorio harrigarriak kontatzen zituzten aita-semeei buruz, biak ala biak iparraldeko inbaitzaileen aurkari garaitu gabeak. Eta nork, eta berak gidatu zuen haraino!

–Alarabi baretarra, ez al duzu aitarik? –esaten entzun zuen.

Bestea mutu gelditu zen, eta zalantza egin zuen erantzun aurretik.

–Zilar zen nire aita...

–Berak eman al zizun kutun hori? –galdetu zion, berriro, zuzen-zuzen begietara begira, medailoia seinalatuz.

–Ez... zera... Txikia nintzenean hil zen aita, eta taldeko gudari batek adoptatu ninduen.

–Nola zuen izena?

–Unmarilun Elanoa...

Ez zuen izan beste ezer esateko astirik. Aretoan bildutakoak zurtuta gelditu ziren, baina Xemenok eskuin izterreko babesgarrian ezkutaturik zeraman aiztoa atera, eta Alarabi zelako haren bularrera jaurti zuen zuzen-zuzenean; Alarabi zerraldo erori zen, izu-laborrizko begirada bat begietan.

Haren aldamera joan zen erasotzailea, berehala, eta zaurituaren medailoia hartu, eta begien aurrean jarri zion.

–Nondik atera duzu kutun hau? –galdetu zion, aha-peka-. Eta, ez, ez esan Unmarilun Elanoak eman zizula, ez da egia-eta. Madarikatu hura sekula ez zen izan Itunaren Zaindaria, seme bakarra zuen, seme hura hil egin zen, eta ez zuen beste semerik adoptatu; ez zion astirik eman. Jainkosak nora ezean bakar-bakarrik ibiltzera zigortu zuen, basati bat balitz bezala, horixe zen eta, basati hutsa, eta ez dut uste bizirik izango denik ere. Erantzun, ba: nondik atera duzu?

–Aurkitu egin nuen...

–Non?

–Dolkiti izeneko batena zen... aranotarren taldeko batena...

Alarabik estu zuen arnasa, eta odolez gorri, soingainekoaren bularralde brodatu zoragarria.

–Lapurtu egin zenion?

–Ez... bai...

–Eta zer ari zara hemen, gure artean, guttarraren plantak egiten?

–Gautek... gautek eskatu zidaten esku hartzeko... erruki zaitez nitaz...

Xemenok keinu bizkor batez zaurituari aiztoa bularetik atera, eta lepoa moztu zion bat-batean.

–Arratoi zikin hau salataria zen, gure herriaren etsaiei saldu zien bere burua –bota zuen, erabateko lasaitasunaz.

Arma soingaineko granatean garbitu, eta babesgarrian ezkutatu zuen atzera; gero, hildakoari medailoia kendu, eta banan-banan begiratu zien mahai bueltan eserita zeuden gizonari, artean baitzeuden durduzaturik, eta, azkenik, eskailera alboko txoko ilunera begiratu zuen, non istant batzuk lehenago entzun zen nahigabezko intziri bat.

Urtun eskaileretan gora igo zen, ahal bezain bizkor, eta, gelaxkara iritsi orduko, *Gorrixa* besarkatu eta haren txima bustietan ezkutatu zuen aurpegia.

– II –
ARAKIA

Bare zegoen bailara, ardien zintzarriak eta mendi goietan habia zuten arranoen karrankak beste ezer entzuten ez zela; baina, halako batean, adar-hotsa entzun zen. Laianek ongi baino hobeto ezagutzen zuen soinu hura, txikia zenetik entzun zuen, harekin hazi zen. Askotan igotzen zen mendi gailurrera aitonarekin; han goian, inguruko lurra, txorien hegaldia, zerua ikusten zituzten, eta adarra jotzen zuen aitonak, ekaitza bazetorren, urrunean suren bat ikusten bazen, urtzaldian elur-jausiak edo uholdeak gertatzeko arriskua bazegoen, baita arakien eskualdea lasai bazegoen ere. Deiadarrek zeinek bere ahotsa zuten, eta herriko guztiek zekiten egunak zer ekarriko zien, adar-jotzaile zahararren trebetasunari esker. Neskatilak ongi ezagutzen zuen heriotzaren deiadarra ere. Sekula ez zuen ulertu nola jakiten zuen amaren aitak norbait hil zela, baita urruneneko txabolana ere, ibaiatz beste aldera, baina jakin egiten zuen, eta

bizilagunei abisua ematen zien. Oraingoan, heriotza iragarrri zuen adarrak, eta hotzikara batek gorputz osoa dardarazi zion bere ileen azken sustraietaraino. Eguna argitzerako abiatu zen aitona, isil-isilik, bera esnatu gabe. Halaxe egiten zuen batzuetan: ezer esan gabe alde egiten zuen, eta handik puska batera itzultzen zen, goseak amorratzen, urdaitan frijitutako arrautza pareta eta taloak jateko desiratzen, eta horretantxe ari zen bera, hain zuzen, taloak prestatzeko artatxiki irina oratzen.

Urrunean ikusi zituen, eguerdi aldera: lau artzain, txabolara bidean. Gorpu bat zekarten lauren artean, eta berehala konturatu zen norena zen, arrazoitzeko adina zuenetik maitasuna erakutsi zion izaki bakarrarena, beste inork ez zion maitasunik eman. Aitonak ez zion horretaz hitz egin nahi izaten, baina, emakumetu zenean, lortu zuen noizbait azaltzea Arakiako biztanleek zergatik adierazten zioten berari halako etsaitasuna Arayngo gotorlekuko batzarretan, Uzta Festan, Jainkosaren Erditzearen festan edo gaurik luzeenarenean.

–Zure amak legea urratu zuen –esan zion, behin, suntuondoan zirela, bere kontra zuten herraren zergatia hamai-kagarrenez galdetu ziolarik.

–Zer lege?

–Usadioarena, zeinak gaitzesten baitu araki bat arrotz batekin uztartzea. Gotorlekuko gerraria zen zure aita, nor zen zehazki sekula jakiterik izan ez zen arren, ez baitzen lurralde hartako inongo talde edo leinu ezagunetakoa. Zure amari ez zitzaion axola izan, ordea; harekin elkarganatu zen, eta horrelaxe jaio zinen zu. Ohituko zen jendea, ez baitzen lehen kasua ere, baina...

Aitona isildu, eta ezpainak estutu zituen.

–Baina... zer? –behartu zuen berak.

–Baina bazen beste zerbait... Izar ez zen besteak bezalakoa... Ezta zure amona ere, nire maitekidea...

Etenka ari zitzaion hizketan, hitzak ebakitzea ikaragarri kostatuko balitzaio bezala, eta gehiago jakiteko irrikaz aitona ez estutzeko eginahalak egin behar izan zituen.

–Izaki zinez berezia izan zen zure ama –jarraitu zuen aitonak, isilaldi luze baten ondoren–, bere ama eta haien aurreko emakumeak bezalaxe, baina zure ama, beste guztiak baino are gehiago, eta zurrumurrua zabaldu zen... zera... zera... sorgina zela.

Kostatu zitzaion hura onartzea, bizi osoa ia, baina, azkenean, esan egin zuen. Laianeri iruditu zitzaion barrena la-saitu zuela, eta gertaera bitxi bati buruz, berari ez zegokion zerbaiti buruz, hizketan ari zitzaion ezezagun bati bezala begiratu zion. Eta hizketan jarraitu zuen adar-jotzaile zaharrak, begirada galduaz, bilobaren erreakzioari erreparatu gabe berak ere.

Izarrek, inguru haietako emakumerik ederrenak, hegan egiteko ahalmena besterik ez zuen falta Arrano Harriko Amari berbera izateko. Ez zegoen Izar bezalako beste inor: txilin-hotsa zuen haren barreak; uraren koloreko begiradaz besteen begietan barrena begiratu, eta gai zen galdetzen zionak zer gaitz zuen igartzeko, baita zena zelako gaitza sendatzeko ere, baldin eta sendagarria bazen. Landareak ezagutzen zituen, haizearen hotsa interpretatzen zuen, ibai eta iturrietako uren ibilera irakurtzen zuen. Begirunea eragiten zuen, baita, aldi berean, beldurra ere. Leinutik kanpoko

batekin elkartu izana aitzakia hutsa izan zen harengandik aldentzeko, eta alabaz erditu zenean okerrera egin zuen egoerak. Ama egin zuen gerrariak alde egin zuen, eta sekula gehiago ez zuten izan haren berri; eta Izar ez zen bere onera etorri erdizetik, edo, akaso, maite zuen gizonaren abandonutik. Hurrengo neguan hil zen. Bailaran zurrumurrua zabaldu zen besteak sendatzeko ahalmena izanik ezin izan zuela bere burua sendatu, zigor horixe jaso zuelako Jainkosarekin norgehiagoka aritzen ausartu izanagatik. Alabaren galera deitoratu, eta alabatzat hartu zuen agureak biloba, baina arakiek ez zuten aise ahazten, eta uste osoa zuten haurrak amaren ahalmen guztiak bereganatu zituela. Ez ziren ausartzen jendaurrean halakorik esaten, are gutxiago agurea aurrean bazen, baina bazekien batzuek “sorgin txikia” esaten ziotela neskatilari, eta, hori dela-eta, ez zion uzten baluartera bakarrik jaisten, eta eginahalak eta bi egiten zituen hura gazte arrunt baten modura hezteko, gogotik lan eginaraziz, ameskerietan galduta ikusiz gero errieta emanaz, sekula hitz erdirik esan gabe mundura ekarri zuen emakumeaz, zeinaren gero eta antz handiagoa hartu baitzuen koskortu ahala.

Laienek denbora behar izan zuen informazio hura guztia barneratzeko; galderak egin nahi zizkion aitonari, baina agureak ez zuen beste ezer esan kontu hartaz, eta bere baitara bildu zen, ordura arte sekula ez bezala, beti izan zen arren gizon isila. Saiatu zen bere kabuz ikertzen benetan bereganatu ote zuen beretarrek bere amari –berak ordurako ahaztua zuenari– egozten zizkioten ahalmen haietakoren bat. Hasieran, ez zuen nabaritu ezer berezirik bere adineko beste edozein neska ez bezalako zela sentiaraziko zionik,

baina, xehetasun txikiei arreta jartzen hasi zelako, agian, ordura arte oharkabea igarotako seinaleez, bitxienez ere, jabetuz joan zen pixkanaka; adibidez, belarrak bereizteko zuen trebetasunaz, edo ekaitza noiz lehertuko zen zehazki iragarztekoaz; basoko edozein hots bereizten zuen, eta, eskua errekan sartu orduko, laztan egin ziezaien uzten zioten arraintxoek. Ordura arte, ohikoa iruditu zitzaion hura guztia, jolas bat, Naturan hazi zelako eta haren parte zelako. Bestalde, ordea, aitona ere hantxe bizi izan zen beti, eta ez zen gai ardia ernari zegoela jakiteko, harik eta sabela putzen hasten ez zitzaion arte. Berak, aldiz, ardiari begietara begiratu orduko igartzen zion; baita behiei, behorrei eta beste edozein animaliar ere.

Orain, ordea, artzainek gorpua sutondoko ohatilan utzi eta alde egin ondoren aitona gorpua biluzten eta garbitzen ari zelarik, gaubeilarako galarik dotoreenez janzteko, gogoratu zen bezperan heriotza ikusi zuela haren begietan, eta durduzatu egin zuen egiaztapen horrek. Gai zen animalia bat hiltzera zihoala sumatzeko, baina oraingoa bestelako kontu bat izan zen; aitona begiak desagertu egin ziren, instant batzuek, urik gabeko putzu baten hondoa bezalako orban beltz banak ezkutatuta. Izu-ikara sentitu zuen, baina suak txabolan proiektatzen zituen itzal apetatsuen efektua izango zela pentsatu, eta berehala ahaztu zuen kontu hura, berehala aurkitu baitzuen, berriro, hainbeste miresten zuen agure haren begirada beti adeitsua. Egia zen, hortaz, arrazoi zuten beretarrek: ez zen gainerako neskatila arakiak bezalako; heriotzari alde aurretik igartzeko ahalmena duena ez baita izaki arrunta. Malkoak jausi zitzaizkion masailetan

behera, ez zekien bizitzan zeukan euskarri bakarra zendu zelako edo benetan aztia zela egiaztatu zelako, bera oraindik guztiz jabetu ez arren.

Egunean zehar bazter guztietatik etorri zen jendea, ezin konta ahala negutan bailararen ahotsa izandako hura omentzera. Mumo Adar-jotzailearen txabola xumean, gau osoan entzun ziren mirespenezko eresi saminak, erantzuki bakar bat ere ez; baita haren bizitzan oinarriturik bat-batean sorturiko doinuak ere. Denek zioten begirune handia, eta estimatzen zuten, beren erara; eta halaxe erakutsi zuten, gau-beilarako jan-edanak eskainiz. Heriotzaren Gauak zenduaren duinekoa behar zuen izan: hilotzari beila egin, enborrak antolatu, eta su eman zioten, eguna urratzen hastean. Mararama aritu zen elurra, baina une hartantxe atertu zuen, Naturak berak ere ospakizunean parte hartu nahi izan balu bezala. Inor ez zen kezkatu neska gazteaz, beila guztia gorpuaren alboan egin bazuen ere, sekula gehiago ikusiko ez zuen aurpegi hartan iltzaturik begirada; inork ez zion hitz erdirik esan, gehienez ere, errukizko begiraturen bat, eta arrangurazkoa ere bai. Errautsak bildu eta ontzi txiki batean gorde zituelarik, hiru gizon hurbildu zitzaizkion, itxura serioarekin. Bailarako ugazaba ezagutu zuen, pare bat bider ikusia zuelako gotorlekuan, dorrez hornituriko ibaiertzeko harrizko eraikin erraldoian; beste biak, berriz, erabat ezezagunak zituen.

–Bihartik aurrera, Lokiz arituko da Mumoren orde z adar-jotzaile gisa, eta bera biziko da txabolan –iragarri zion buruzagiak, bere kideetako bat seinalatuz–. Bere emaztea izango zara aurrerantzean.

Eta alde egiten ikusi zituen, berak txintik esan gabe, errautsen ontzia eskuetan, burua huts, eta betsareetan il-tzaturik zuela goitik behera miatu zuen basati itxurako gizon haren irudia, zeinak zimurtu baitzuen betondoa, egiaz-tatu orduko xalaren azpian doi-doi sumatzen zitzaiola bularra. Eguerdi aldera, inguruak jendez hustu zirenean, soinean jantzi zuen zeukan arropa guztia –bi gona, artilezko bi elastiko, atorra, artilezkoa hori ere, gerruntzea, bi pare galtzerdi, xala eta amarena izandako soingaineko zaharra–; oihalezko poltsa batean sartu zituen errautsak, aitzur txiki batekin eta benetan berea zuen ondare bakarrarekin, orein adarrezko orrazi batekin; eta aitonaren makila hartu, bizi izan zen tokia azkenekoz behatu, eta elurretan aurrera egin zuen. Ongi ezagutzen zuen arbasoen ehorzleku bateko bidea, baina senari jarraitu behar izan zion, desagertuta baitzegoen bidezidorra. Artean egun argiz zegoela iritsi zen helmugara, eta, elurrez estalita zegoenez harrizko biribila aurkitzen lanak izan zituen arren, azkenean, biribila aurkitu, zulo bat egin eta hantxe sartu zituen errautsak; gero, zuloa berriro estali, eta Jainkosari erregutu zion har zezala bere bizitokian gizon hura, berak ezagututako aita bakarra. Ez zuen lorik egin, ezer jan eta edan gabe zegoen bezperatik, eta leher eginda utzi zuen hara igotzeko egindako ahaleginak; zoru elurtuan etzan zen, akiturik, amaiera onartuz, bere arbasoekin elkartzeko itxaroan, eta begiak itxi, eta lo gelditu zen.

Esnatu zenean, ez zuen ezagutu non zegoen, eta otu zitzaien lehen gauza izan zen zeharkatu zuela hilen atea eta Amariren bizitokietako batean zela, toki epel atsegina batean,

baina harritu egin zuen hormak urrez estalita ez egoteak, halaxe zeudela esaten baitzen. Gero ohartu zen ez zela espiritu bihurtu; hezur-haragizkoa zen, artean, eta ez zegoen toki magiko batean, haitzulo batean baizik, artzainek korta modura erabiltzen zuten horietako batean, ez handia ez txikia, sabai nahiko baxua zuena, eta zirrikitu bat, argia bai baina haizea eta euria barrura ez sartzeko modukoa. Lastozko ohe batean etzanda zegoen, eta larruez estalita; su txiki baten distira islatu zen bere begi-ninietan.

–Esnatu zara, azkenean! –entzun, eta eseri egin zen, izututa.

Ez zuen ezagutzen sutondoko txokoan eserita irribarretsu begiratzen zion emakume hura. Bazuen zerbait eza-guna gertatzen zitzaiona, baina ezin asmatu zer zen.

–Ona Agamundakoa naiz –aurkeztu zuen bere burua.

–Sorgina! –ihes egin zion nahi gabe.

Emakumea barrez hasi zen, eta harpeko bazter guztietan entzun zen haren algara alaia.

–Hala da –esan zion, irribarreari eutsiz–, halaxe esaten didate ezjakinek, zu ere gutxiesten zaituzten eta zure beldur diren horiek berek; baina, lasai, ez naiz arriskutsua, Laiane maitea, Izar nire ahizpa saminez oroituaren alaba.

Ahoa zabaldu zuen, harriduraren harriduraz, baina ezin izan zuen hitzik ebaki. Nola zekien emakume hark bere izena? Nola bere amaren ahizpa? Alaba bakarra zen bere ama. Nola zekien beretarrek ez zutela estimu handitan? Nola iritsi zen bera haraino? Zenbat denbora egin ote zuen lo? Galderak arrapaladan zetozkion gogora, bata bestearen atzetik, erantzunik aurkitu gabe, ordea.

–Nik aukeratu nuen zuretzako izena. Izar nire ahizpa bikia zen, jaiotzean banandu gintuzten; gurasoek bera hartu zuten, eta Damarekin utzi ninduten ni, baina beti izan genuen harremana, zer gertatu zen ulertzeko gai izan ginenetik, artean txiki-txikiak ginela. Beti izan nauzu alboan, ikusi dut nola hazi zaren, baita Arakiakoek nola tratatzen zintuzten ere. Zure aitonaren, nire aitaren, gaubeilan izan nintzen; eta, biharamunean, abiatu zinenean, zure atzetik joan nintzen eta hona ekarri zintudan elurretan lo gelditu zinenean. Orain bi gau izan zen.

Banan-banan erantzun zien bere galdereri, berak galderak ozen esan gabe ere. Nola liteke? Sekula ez zuen emakume hura lehenago ikusi.

–Ikusezin bihur zaitezke? –besterik ez zitzaion bururatu.

–Ez. Baina ez da ikusten ikusi espero ez den hura, aurrean eduki arren. Eta, balio badizu, inola ere ez nuen onartuko basati hark ohatzera eramatea eta bere emazte izatera behartzea.

Berriro ere, harpea bete zuen haren barre algarak, eta aitonaren hitzak gogora etorri zitzaizkion gazteari: “txilinhotsa zuen haren barreak”, amaren ahizpa ezagutu berriarenak bezalaxe. Bat-bateko pentsamendu batek arnasa eten zion: ama eta emakume hura bikiak baziren, bere amaren aurpegia ikusten ari zen lehen aldiz. Emakume heldu baten ilea eta hazpegiak izan arren, uraren koloreko begi haien begirada gazteak berarekiko halako maitasuna adierazten zuen, ezen hasperen sakona egin baitzuen, hunkiturik, hain sakona, itoko zela uste izan baitzuen une batez.